

XALBADORREN HERIOTZEAN

Egilea: Xabier Lete

ADISKIDE BAT BAZEN
OROTAN BIHOTZ-BERA,
POESIAREN HEGOEK
SENTIMENTUZKO BERTSOEK
ANTZALDATZEN ZUTENA.

PLAZETAKO KANTARI
BAKARDADEZ JOSIA,
HILTZEN LIHOA IRUTEN
BERE BARNEAN IRAUTEN
OINAZEZ IKASIA...
IKASIA.

NUN HAGO, ZER LARRETAN
UREPELEKO ARTZAINA,
MENDI HEGALETAN GORA
OROITZAPEN DEN GERORA
IHESETAN JOAN HINTZANA.

HESIA URRATURIK
LIBRATU HUEN KANTA,
LOTURA GUZTIETATIK
GORPUTZAREN MUGETATIK
ASKE SENDITU NAHIRIK.

AZKEN HATSA HUELA
BERTSORIK SAKONENA,
INOIZ ESAN EZIN DIREN
ESTALITAKO EGIEN
OIHURIK BORTITZENA...
BORTITZENA.

NUN HAGO, ZER LARRETAN
UREPELEKO ARTZAINA,
MENDI HEGALETAN GORA
OROITZAPEN DEN GERORA
IHESETAN JOAN HINTZANA.

